

## EMOZIO-SALTSA

Idatzi sentimendu edo emozio bakoitza dagokion definizioaren ondoan.

Beldurra

Haserrea

Tristura

Lotsa

Itxaropena

Maitasuna

Gorrotoa

Zoriona

Ustekabea

Errukia

Poza

Zoritxarra

Beldurra	Arrisku fisiko ustezko edo erreal baina hurbil, konkretu eta suntsigarri batek sortzen duen emozio bizia.
	Egin den hutsak, hartu den irainak, edota zenbait pertsonaren aurrean egoteak sortzen duen sentipen ezatsegina.
	Pertsona, gauza edo fenomeno gogaikarri batetik hurbil egoteak sortzen duen hura saihesteko gogo bizia.
	Pertsonen arteko estimu sakonari dagokion kontzeptu unibertsala, atxikimenduarekin (lotura afektibo handia) eta adiskidetasunarekin (afinitatea) erlazionatutakoa (batzuetan, ez da elkarrekikoa izaten).
	Beste pertsona baten sufrimendua ulertzea eta sentitzea, eta sufrimendu hori saihesteko eta gutxitzeko gogo.
	Espero ez duzun zerbaiten aurrean erreakzionatzean sentitzen den emozio laburra.
	Konponbiderik gabeko galera edo ezbehar batek sortzen duen sufrimendu psikologikoa.
	Pertsona batek bere barnean sentitzen duen poz, alaitasun, gozamen, lasaitasun eta maitasun beteko egoera.
	Batere atsegin edo gogoko ez denak eragiten duen pozgabetasunezko egoera edo sentimen ageria.
	Nahi edo desiratzen dena beteko dela sinestean oinarritzen den emozioa.
	Pertsona bati zerbait atsegina gertatzen zaionean sortzen den gogobetetasun emozioa.
	Zoriak ekarritako gertakari edo egoera kaltegarria; norbait gogor jotzen duen ezbeharra.